






Aiaraldea

Jaietan

Jaietako gehigarri berezia



Luiaondo



Gazteak eta boloak jaietako protagonista

Testua eta argazkia
Aimar Gutierrez Bidarte

Iaz jarritako markari eutsi nahi diote Luiaondoko Jaietan. Administrazio Batzarreko kideak buru-belarri aritu dira azken hila-beteetan jaietako programazioa lotzen, eta aurten ere "adin guztientzako eskaintza zabala" prestatu dute. Honezkerok badute jaietako-ordezkarria izandakoa, eta uztailearen 20an kultur etxetik txupinazoa jaurtitzea baino ez da falta.

Gazteen ekarpena giltzarri

Azken urteetan bezala herriko gazteen ekarpena funtsezkoa izan da jai-egitaraua osatzeko. "Duela hilabete batzuk berriekin jarri ginen harremanetan Luiaondoko festetan egotea nahi zuten kontzertuen zerrenda osatzeko", azaldu dute Administrazio Batzarretik. Oso pozik azaldu dira emaitzarekin; eta herri-tarrak asebetetzeko musika eskaintza egongo da jaietan. Uztailearen 21ean Akerbeltz erromeria eta DJ Gomi egongo dira; 22an,

aldiz, Kresala eta DJ Varro. Horrez gain uztailearen 23an Luhartz erromeriak herriko nagusienak gozaraziko ditu. Etxebarria aita- seme trikitilariak ere arituko dira festen asteburuan zehar herriko kaleak girotzen Musika eskaintza bideratzea ez da herriko gazteek festei begira egindako ekarpen bakarra. Uztailearen 23an, igandea, frontenis txapelketa antolatu dute 14:30etan. "Zaletasuna piztu da herrain, eta euren inizatibari esker antolatu dute frontenis txapelketa", azpi-

marratu dute Administrazio Batzarretik. "Oso pozik gaude gazteen parte hartzearekin. Gazteak dira Luiaondoren etorkizuna, eta ikusten dugu badagoela lekukoa nor hartu".

Lekubatxe bolatoki kluba

Aurtengo jaietan protagonismo berezia izango du herriko Lekubatxe Bolatoki Klubak. Izan ere, Luiaondon jokatu da Euskal Herriko Bola txapelketa datorren urteko ekainean, eta ekimen finantzatzeko asmoz jaien an-

tolaketaren zati handi bat hartu dute klubeko kideek. Andra Mari Magdalena elizako txosna kudeatzeaz gain beste hainbat ekintza ere prestatu dituzte Lekubatxe-ko kideek, hala nola: uztailearen 21eko txintxorta jana, uztailearen 22ko vermut musikatua edota uztailearen 23ko mus txapelketa eta magia ikuskizuna. Nola ez, bola txapelketak ere ez dira falta. Uztailearen 23an egingo dute Magdalena Saria Bolo Txapelketa herriko bolatokian, 11:00etatik aurrera.

KOPAS IDEIAK GAUZATZEN DITUGU

Alda. Urkijo, 88 -2º
48013 Bilbao
kopas@kopas.es
Tfno. 94.442.22.24



Aialako Industrialdea, 8
01479 Murga - Aiara
fabrica@kopas.es
Tfno. 945.39.94.05

www.kopas.es



Jaietan ere euskaraz!

www.aiarakoudala.eus

Herriz herri

ARAKALDO

Arakaldoko jai batzordeak kaleratu du jai egitaraua



Testua
Jone Gartzia Gerra

Inoiz baino indartsuago da goela esan dio Arakaldoko Jai Batzordeak Aiaraldea Komunikabideari. Egitarauan aldaketa gutxi egin dutela ere aitortu dute kideek, baina badakarte berezitasun nabarmen bat: artzain txakurren erakustaldia berreskuratuko dute aurretan. Antzina egiten zen jarduerak da; baina, zenbait arrazoi medio, azken urteetan ez dute egitarauan jaso. Aurten, ordea, igandeko jarduera nagusietako bat izango da.

Igandea baino lehen, aldiz, beste bi jai egun prestatu dituzte jai batzordeko kideek. Uztailaren 14an, ostiralean, eman go diete hasiera herriko jaiari, txupinazoa jaurtiz. 19:00etan izango da hori, eta jarraian buruhandiak, txotxongilo mitologikoak, txorizo eta odoloste dastaketa eta musika izango dituzte herrian. 21:30etik aurrera ikuskizunak hartuko dute nagusitasuna: lehendabiziki Xaiborrek girotuko du herria, ostean Yogurinha Borovak eta gauerditik aurrera Xaiborrek osterak ere.

Hurrengo egunean, larunbatean, 11:30ean eman go diete hasiera egunari txistu kalejirarekin. Arratsaldean protagonista nagusia tortilla txapelketa izango da. Aurtengo epaimahaia Laudioko Bengoa tabernako kideek osatzen dute, antolatzaileek jakinarazi dute-

naren arabera. Gauean, ohi legez, musika emanaldiek izango dute nagusitasuna. Txarly Usher y Los Ejemplares laukotea, Hotel Ruido bertsio bikotea eta gauerditik aurrera The Pushermen taldeak igoko dira oholtzara

Astlehenean atsedeen hartu-

ko dute eta asteartean eman go diete amaiera jaiari, eguerdiko meza, pintxo eta trikiti emanaldiarekin. Arakaldoko Jai Batzordeko kideak gogotsu daude eta egitaraua erlojupean prestatu badute ere, inoiz baino indar eta gogo gehiagorekin hartuko dituzte herriko jaiak.



Arakaldo

G R Á F I C A S

Zure inprimategia izan nahi dugun

📍 Paraje Usillarra 1. ☎ 94 672 13 11

ARAKALDO 🌐 graficasarakaldo.eu

EUROMASTER

TALLERES PICAZA

ONDO PASA JAIETAN!

 MEKANIKA	 ESEKIDURA
 OLIOA	 AIRE GIROTUA betetzea
 BALAZTAK Pastillak eta diskoak	 PNEUMATIKOAK Marka guztiak
 DIAGNOSIA BKT Diagnostika	GAS GARBIKETA I.A.T.ARI BEGIRAKO BERMEAREKIN

La Isla auzoa z/g. Arakaldo 94 672 74 81 - 656 701 399

TERTANGA

Festa-giroa izango da nagusi Tertangan

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Delikako jaien lekukoa hartuko dute asteburu honetan Tertangako bizilagunek. Uztailaren 7tik 11ra bitarte herriko jaiak ospatuko dituzte, eta egitarau oparoa antolatu dute, aurreko urteetako eskema berdina jarraituz.

Ostiralean jaurtiko dute festetako lehenengo txupinazoa, eta, horrekin batera, hasiera eman go diete jaietako gau luzeenari. Gauargi erromeriak girotuko du iluntzea frontoiko eszenatik, baina jai-giroa goizaldera arte luzatzearen ardura Txapis & cia. musika-jartzaileek izango dute. Biharamunean -uztailak 8-, herri bazkarian elkartuko dira Tertangako bizilagunak,

eta Iñaki Otegi aiarrak bazkalosteko dantzaldia gidatuko du.

Uztailaren 10ean eta 11n Kristobal Deuna ospatuko dute tertangarrek. Astlehenean kanpai errepikekin eta suziri jaurtiketekin abiatuko dute eguna. 12:00etan mesa egingo dute herriko patrioiaren omenez. 13:00etan herriko plazan elkartuko dira trikitrixa doinu artean eta 13:30ean tarta baten zozketa egingo dute. 15:30etan trikiti kalejirak Tertangako etxe guztiak bisitatuko ditu.

Uztailaren 11n agurtuko dituzte 2023ko festak. 12:00etan meza eta luntxa egingo dute. Egitaraua ixteko herriko bizilagunen bolo jokaldia egingo dute Tertangako bolatokian, arratsaldeko 18:00etan.



ARAKALDOKO JAIK 2023

Uztailak 14 barikua

19:00 Txupinazoa
19:00 Buruhandiak:
Txotxongilo mitologikoak
19:15 Txorizo eta odoloste dastaketa musikarekin

IKUSKIZUNAK

21:30 XAIBOR
23:30 YOGURINHA BOROVA
00:30 XAIBOR

18:00 Herri kirolak
18:00-20:00 Bolo txapelketa

KONTZERTUAK

21:00 TXARLY USHER Y LOS EJEMPLARES
22:30 HOTEL RUIDO
00:00 THE PUSHERMEN

Uztailak 15 zapatua

11:30 Txistu kalejira
12:30 Buruhandiak:
Txotxongilo mitologikoak
12:30 Haurrentzat: Mirikirekin dantza eta jolasa+ Txapen tailerra
13:30 Apar festa
17:30 Tortilla lehiaketa (epaimahaia: Bengoa taberna, Laudio)
17:30 Haur-parkea

Uztailak 16 domeka

10:30 Trikitrixa kalejira
11:00-13:30 Bolo txapelketa
12:00 Artzain txakurren erakusketa
12:30 Bermutaren ordua txaranga musikarekin
13:00 Igel txapelketa
14:30 Herri bazkaria

Uztailak 18 martitzena

12:00 Meza, pintxoak eta trikitrixa

Etorri herriko jaiak gozatzerara!

Udako agenda

2023ko uztailaren 7tik
2023ko uztailaren 31ra

Tertanga

07 OSTIRALA
22:30 Pilotalekuan
Txupinazoa
22:30 Pilotalekuan
Gauargi
erromeria/
DJ Txapis &
cia. returns

08 LARUNBATA
14:30 Pilotalekuan
Bazkari
herrikoia
17:30 Pilotalekuan
Dantzaldia
Inaki
Otegirekin

10 ASTELEHENA
11:00 Elizan
Txupinazoa
eta kanpai
errepika
12:00 Elizan
Meza
13:00 Elizan
Trikitia eta
tarta
zozketa
15:30 Herrian zehar
Kalejira
Tertangako
etxeetatik

11 ASTEARTEA
12:00 Elizan
Meza eta
mokadua
18:00 Bolatokia
Bola jokaldia



Zuhatza

15 LARUNBATA
09:15
Pezukerari
agurra
09:30
Mendi martxa
14:30
Paella jana
16:00
Puzgarriak
eta apar
festa
19:30
Mugi Boogie
20:30
Parrillada
20:30
Chucin Ibañez
& Garbaldi
Band Taldea
24:00
Dj Flama

18 ASTEARTEA
12:30
Meza abestua
19:30
Inakiren
erromeria
21:00
Pezukerari
agurra



Arakaldo

14 OSTIRALA
19:00
Txupinazoa
19:00
Buruhandiak
19:15
Odoloste jana
16:00
Xaibor /
Yogurinha Bo-
rova /
Xaibor

15 LARUNBATA
11:30
Kalejira
12:30
Buruhandiak
12:30
Mirirekin
dantza eta
jolasa


13:30
Apar festa
17:30
Tortilla
lehiaketa
18:00
16 Herri kriolak
18:00
Bola
txapelketa
20:00
Txokolatada
21:00
Txarly Usher
y los ejem-
plares / Ho-
tel Ruido /
The pushermen

16 IGANDEA
10:30
Kalejira
11:00
Bola
txapelketa
12:00
Artzain
txakur
erakustaldia
12:30
Bermuta eta
txaranga
13:00
Igel
txapelketa
14:30
Herri bazkaria

Erretes Llanteno

08 LARUNBATA
11:00
Txupinazoa
12:30
Paella
txapelketa
16:00
Apar festa
18:00
Tronza
19:30
Aiara Dantza
Taldea
21:00
Parrillada
22:30
Dantzaldia
Partymanekin
00:30
Zirkinik Bez
03:30
DJ Varro





Luiaondo

20 OSTEGUNA
18:00 Malato zuhaitza
Betijai fanfarria
20:00 Kutlur etxea
Txupinazoa
20:30 Elizako zelaia
Buruhandiak
22:00 Elizako zelaia
Joselu Anaiak

21 OSTIRALA
17:00 Frontoia
Huarrentzako puzgarriak
17:00 Bolatokia
Huarrentzako bolo txapelketa
20:30 Elizako zelaian
Hirugihar jana
23:00 Elizako zelaia
Akerbeltz/ DJ Gomi

22 LARUNBATA
11:00 Bolatokia
Bola tirada
12:00 Elizan
Meza nagusia
12:30 Elizako zelaian
Bermuta eta Ganeko erromeria

17:00 Frontoia
Pilota jaialdia
17:00 Bolatokia
Bola tirada handia
16:00 Elizako zelaia
Etxebarria aita- seme trikitilariak
21:30 Elizako zelaia
Odoloste jana
23:00 Elizako zelaian
Kresala / DJ Varro

23 IGANDEA
14:45 Frontoia
Frontenis txapelketa
16:30 Kutlur Etxea
Mus Txapelketa
18:00 Elizako zelaian
Linaje Magoa
19:30 Elizako zelaian
Bingoa
20:30 Elizako zelaian
Txistorra jana
21:30 Elizako zelaian
Luhartz erromeria

Areta

21 OSTIRALA
15:00 Txosnagunean
Gazte bazkaria
17:30 Txosnagunetik
Elektro-txarA.G.A.
19:00 Kultur Etxean
Pregoia eta txupinazoa
19:15 Kultur Etxetik
Buruhandiak
19:15 Kultur Etxetik
Kalejira Aretako Txistulariekin
23:00 Txosnagunean
Xumel / Sapo y el sello / Altxa Porru erromeria

22 LARUNBATA
10:00 Txosnagunean
Marmitako txapelketa
10:00 Txosnagunean
Artisau eta baserritar azoka
11:00 Frontoia
Rafa Olabarria memoriala
12:00 Aratz tabernan
Igel-toka
12:00 Kultur etxean
Gaztelu puzgarriak
13:00 Kultur Etxean
IV. omenaldia Aretako Txistulariei
17:00 Bolatokian
Arabar bola joko txapelketa
18:00 Txosnagunetik
V. Areta Trail
18:00 Kultur Etxea
Apar festa
20:00 Jubilatuetan
Kalejira Aretako trikitilariekin
20:00 Txosnagunean
Herri parrillada
23:00 Txosnagunean
Las sexpeares/ Iratzar erromeria / Dj Bad Soun Sister

23 IGANDEA
12:30 Parkean
Herri Kriolak

15:00 Txosnagunean
Herri bazkaria
18:00 Frontoia
Eskupilota profesional partidak
19:00 Herrian zehar
Aretako buruhandiak
20:00 Txosnagunean
Inguma taldearen dantza plaza
22:00 Txosnagunean
Belgorri

4 ASTELEHENA
09:45 Kultur Etxetik
X. Alpitxu igoera
12:30 Kultur Etxea
Ping Pong txapelketa
18:30 Txosnagunean
Huarrentzako jolasak eta tailerrak
19:00 Herrian zehar
Aretako buruhandiak
21:30 Kultur Etxean
Igor Arzuaga

25 ASTEARTEA
11:00 Txosnagunean
X. Paella txapelketa
10:00 Santa Anan
Bi Hotsak abesbatza
18:00 Herrian zehar
Buru handiak
18:00 Kultur Etxean
Pintxo dastaketa

14:00 Santa Ana zelaia
Ardi txakur lehiaketa
18:00 Herrian zehar
Kalejira San Roque bandarekin
22:00 Txosnagunea
Gauargi erromeria

26 ASTEAZKENA
17:30 Santa Ana zelaia
Mugarriei bisita
19:00 Santa Ana
Meza
20:00 Jubilatuetan
Bazkaria eta dantzaldia
17:00 Kultur Etxea
Huarrentzako tailerrak Pinpilirekin
19:00 Herrian zehar
Aretako buruhandiak
21:00 Jubilatuetan
Berbena

27 OSTEGUNA
17:00 Kultur Etxea
Pintakrak
19:00 Herrian zehar
Aretako buruhandiak
20:00 Jubilatuetan
Txokolate jana
21:00 Jubilatuetan
Dantzaldia eta jaien amaiera



Areta



“Aukera hau baliatu nahi dugu Aretako herri guztiari eskerrak emateko”

Urtzi Garai, Haitz Garai, Naroa Ugarte eta Nabar Olabarrieta, Aretako aurtengo txupineroak. Aiaraldea.eus

Aretako bi urteko gelako gurasoak dira URTZI GARAI, NAROA UGARTE, NABAR OLABARRIETA eta IRATI URKIJO. Aretako Eskolan HAITZ eta INHAR matrikulatzeko borrokak mobilizazio erraldoia piztu zuen Aretan. Jai Batzordeak bi familiei eskaini die aurtengo txupineroak izateko aukera.

Testua eta argazkia
Aimar Gutierrez Bidarte

Nola jaso zenuten Aretako jaien txupinero izateko gonbitea?

Urtzi: Nik jaso nuen gonbitea, mezu bat bidali zidaten jai batzordeko kideek. Beste familiarekin komentatu genuen eta proposamena onartzea erabaki genuen. Gainera, ni aretarra izanda, askoz hobeto; Aretako herritarrek bota dezatela txupina, eta ez laudioar batzuek iaz bezala (barreak).

Ikasturte korapilatsua izan da honakoa zuentzako. Nola interpretatzen duzue txupinero izateko gonbitea?

Urtzi: Aukera hau balia-

tu nahi dugu Aretako herri guztiari eskerrak emateko. Oraindik ez dugu guztiz prestatu esango duguna, baina hori izango da mezu nagusia: eskerrak eman eta azaltzea zer nolako kaltea eragin diezaiokeen Areta bezalako herri bati bere eskola ixteak.

Mobilizazioen ondorioz, zuen bi seme-alaben matrikulak onartu egin dituzte. Nola dago egoera gaur gaurkoz Aretako eskolan?

Naroa: Eskolako zuzendaria deitu gintuen duela gutxi, gure matrikuletaz gain beste bi matrikula ere bazeudela esateko, tramitatuak izateko zain. Aurrekoan baieztatu ziguten baietz, beste bi haur sartu direla bi urteko

gelara. Ikasturte honetan, beraz, bi eta hiru urteko gelak batuko dituzte Aretan: bi urteko lau haur, eta hiru urteko bost, bederatzi guztira.

Hezkuntza Saitetik ezartzen den minimoa irakasle bat jartzeko sei ikasle dira. Datorren urtean aurreikusiten dugu ere egoera antzekoa izango dela, hiruzpalau haur daude Aretan bi urteko gelan matrikulatzeko. Hurrengo belaunaldian, aldiz, badaude sei-zazpi haur.

Beraz, gaur gaurkoz, ez dago ezer ziurra, itxaroten jarraitzen dugu Aretako Eskolak bermeak izan ditzan.

Urtzi: Alkate ohiaren mezua jaso genuenean ere aipatu genuen albiste gazi-gozoa zela hura. Izan ere gure, ma-

trikulak onartzetik harago, ez genuen inolako bermerik jaso bi urteko gelaren eta Aretako Eskolaren inguruan. Ez dakigu zer gertatuko den datozen urteetan. Gainera, honezkero ez dago hauteskunderik tartean. Ez dakigu urtero izan beharko dugun borroka hau, nahi eta nahi ez. Bilatu beharko ditugu beste aukera batzuk ez egoteko urtero egoera berdinean.

Eskola itxi nahi badute aurrean egongo gara, baina bertartean beste bide batzuk bilatu beharko ditugu.

Aretako Eskolak duen garrantzia azpimarratu nahi duzue txupinazoko mezuan. Zer ematen dio eskoalk Aretari?

Urtzi: Haurrak Aretan bertan errotzen laguntzen du Aretako Eskolak. Ikasleen lagun-taldeak bertan sortzen dira, eta horrek esan nahi du eskolatik ateratzen direnean ere lagunek Aretan elkartzten jarraituko dutela. Aretarekiko lotura horretatik etorriko da herriko dinamika desberdinetan murgiltzea, edota Aretako jaien prestaketan aritzea, esaterako. Adin desberdineko topagune dira Aretako herri-dinamikak ere.

Aretak duen izaera propio hori desagertzeko lehenengo pausua litzateke Aretako Eskola desagertzea. Herri independente baten nortasuna, eta Laudioko auzoetatik desberdintzen gaituena desagertuko litzateke.

“Aretak duen izaera propio hori desagertzeko lehenengo pausua litzateke Aretako Eskola desagertzea. Herri independente baten nortasuna, eta Laudioko auzoetatik desberdintzen gaituena desagertuko litzateke”

Uste duzue Aretako herri izaera hori determinantea izan zela Aretako Eskolaren aldeko mobilizazioetan?

Naroa: Aretako norbait ikutzen badute, herri guztia blokean doa. Indar hori ezinbestekoa izan da. Aretak bere osotasunean lortu zuen zer-bait izan zen.

Urtzi: Aretako jendeak ulertu zuen ez zela Haitzen eta Inharren arazo bat, baizik eta herri guztiari eragiten zion arazo bat.

Nola oroitzen dituzue mobilizazio horiek?

Naroa: Kaos hutsa izan zen. Oso epe estua genuen eran-

tzuteko. Batzarretan eta bileretan pasatu genituen egunak. Azkenean, herri guztia mobilizatu, eta matrikulak mantentzea lortu genuen.

Nabar: jendearen erantzuna bikaina izan zen. Gu ez gara Aretakoak, duela hiru urte etorri ginen hona bizitzera, eta jaso dugun babesa izugarria izan da! Lehenengo momentutik herritar guztiak izan ditugu atzean, gu laguntzeko prest.

Bi urteko haurren gurasoak zarete zuek. Nola biziko dituzue jaiak?

Naroa: Guk primeran ziu! Primiak bildu ditugu egun horietarako (barreak).

Urtzi: Niretzako Aretako Jaiak munduko jairik onenak. Badakit beste askorentzat ere badirela, nahiz eta aitortu ez. Topera biziko ditugu. Gauean ez ditugu haurrarekin biziko, baina egunean zehar gurekin izango dugu. Joan dadila ikasten zer diren Aretako Jaiak. Haur hauek dira Aretaren etorkizuna.

Nabar: Guk ere berdin. Orain arte Aretako Jaiak Lau diotik etorrira bizi izan ditugu, baina aurtengoak bereziak izango dira ziur. Gainera, Iratiren ama eta nire ama bertakoak dira.



GORA ARETAKO JAIK!
 Uztailaren 21etik 27ra

HERRI KIROLAK
 buruhandiak **JOLASAK**
KONTZERTUAK
 dantza plaza
 gastronomia lehiaketak
 trail lasterketa
AZOKA TAILERRAK

ARETAKO JAI BATZORDEA

SPD
 Belarritakoak
 Tentsioa
 Homeopatia
 Osagarri naturalak
 Aurpegi-ohituren diseinua

farmaciaais
 www.farmaciaais.com

xarmanata
 jatetxea

- Eguneko menuak
- Karta eta menu bereziak
- Ospakizunak

Ondo pasa jaietan!

Tel. 94 672 47 34
 Zuloaga auzoa. ARRANKUDIAGA

AUTOBUSES ONIEVA

Gora Aretako jaiak!

Informazioa eta erreserbak: 94 672 64 45
 Larrialdiak: 619 76 66 51

71 eserleku arteko autobusak

www.onieva.com
 onieva@onieva.com

eltunel

TABERNA-JATETXEA

Otarateko gozoak jaietako egun eta ordu guztietan
Ondo pasa jaietan!

Gasteiz kalea 5, ARETA-LAUDIO Tel. 94 672 05 58

Ugarte

“Egun bat gehiago izango dute Ugarteko Jaiek aurten”

Ugarteko Jai Batzordeko kideak dira ISEL ORTEGA MARTIN eta ANDER CORMENZANA ARANZABAL. Aurtengo egitarauaren nondik norakoak azaldu dituzte.

Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Hilabete bat falta da Ugarteko jaiak hasteko, baina egitaraua plazaratu duzue dagoeneko.

Ander Cormenzana: Iaz hiru eguneko jaiak izan genituen, eta aurtengoak lauokak izango dira. Saiatu gara egun bakoitzean ekintza nahiko sartzen eta egitarau polit bat osatzen.

Zer berrikuntza sartu dituzue?

A.C.A.: Buelta pare bat eman diegu aurreko urteetako ekintzei, berrikuntza batzuk sartu nahi izan ditugulako. Adibidez, azken momentuan itxi dugu zunba saioa Izaskun Del Cerrorrek. Uste dut 2018an egin genuela saio bat, eta aurten errepikatu nahi izan dugu. Beste berrikuntza astelehenean izango da, jaien azken egunean. Ibilaldi gidatu bat egingo dugu Ugarten barrena, auzoko gune kultural eta historiko garrantzitsuenen inguruan hitz egiteko.

Isel Ortega: Egitarauak iazko egitura berdina jarraitzen du. Ostiralean torneoak mantenduko dira. Umeentzako ipuin kontalariak ere egongo dira eta 19:30ean piztuko da jaiari hasiera emateko suzuria. Talo eta txistorra tailerrak egingo dira, eta zunba eta gero kontzertuak egongo dira, Lukiek, Akerbeltz eta DJen eskutik.

Larunbatean ere egitarau oparoa egongo da, ez?

A.C.A.: Bai. Iaz bezala, goizean goiz hasiko gara baserritar eta artisau azokarekin. 11:00etatik 14:30ak arte umeentzako ekintzak burutuko dira Basoa espazioan. Jendeak agian ez du horrenbeste ezagutzen gune hori, eta ikusi dugu Ugarteko jaiak badirela une interesgarria horretarako. Arratsalde osoan zehar, urteetan zehar mantendu diren futbito txapelketako finalak jokatuko dira. Ondoren, sardina jana egingo da 21:00ak aldera, Auzolan taldearen eskutik. 23:30etik aurre-

ra hiru kontzertu egongo dira: Dupla, Bidean erromeria eta DJ Masa.

Eta igandean?

I.O.M.: Esan bezala, igandea ez da azken eguna izango, aurten lau egunez luzatuko direlako Ugarteko jaiak. Goizeko bederatzietan hasiko da eguna, Herriko plazatik abiatuko den kalejirarekin. Umeentzako ekintzak egongo dira jarraian. El Pozo tabernak 'pulpeiroa' eskainiko du, hilabete-ko azken igande guztietan bezala. Horren ostean, poteoa egongo da, eta arratsaldean bizkotxo txapelketa, txosnagunean. Igandea ez denez izango azken eguna, odoslote jana eta dantza-saioa ere sartzea erabaki dugu.

Astelehenean amaituko dituzue jaiak. Nola?


A.C.A.: Umearen Eguna izango da astelehena. Dena dela, ibilaldi gidatua izango da goizeko lehen ekintza, eta arratsaldean hartuko dute protagonismoa hurrek, eurentzako espazioa atonduko baita Basoan, hainbat jarduerarekin: Kalaka egurrezko jolasak, eskalada edota ur-jolasak...

Jaiari amaiera emateko, 19:30ean lokotx bilketa eta txinga txapelketak egingo ditugu eta jaiari amaiera traka botako dugu gero, 22:00ak aldera.

Kanpotik ikusita, aurtengo egitaraua aurreko urteetakoak baino oparagoa dela dirudi, kontzertuei begira batez ere.

I.O.M.: Uste dut saiatu garena adin guztientzako ekintzak prestatzen. Aurtengo egitaraua birpatsatu dugu eta horren arabera egin ditugu aldaketak, funtzionatu ez zuten hainbat gauza kenduz eta funtzionatu dezaketela uste dugun hainbat jarduera jarritz. Hori da erabili dugun ereduja jaiak antolatzerako orduan.

A.C.A.: 2018an jaiak antolatzen hasi ginenetik eman nahi izan diogu euskal musikari garrantzia gehiago. Horregatik sartu ditugu bi erromeria eta aipatutako euskarazko bi taldeak.



PESCADOS La Castreña MARISCOS

Ondo pasa jaietan!

Ugarte kalea 13, LAUDIO
94 656 95 29

UGARTEKO ESTANKOA

300 ARTISAU-GARAGARDO BAINO GEHIAGO
BONOLOTO EUROMILIOIA
KINIELAK

Ugarte 6, LAUDIO - 946 720 869

ULTRAMARINOS SALLÉN

Ondo pasa jaietan!

Ugarte kalea 10 (Laudio)
94 672 05 63